

OINARRIAK BADITUGU

Gure gizartea mugara heldu dela, garapen itsuaren eta baloreen galeraren lasterketan hondoan jo duela uste dugun pertsona talde batek osatutako talde politikoa gara. **Gure baloreak ekologia eta berdintasuna dira, hortik EQUO.**

Estatuan gureen antzeko iritziak dituzten beste talde batzuekin egitasmo honetan elkartzea erabaki dugu, eta haratago ere, etxe nagusia litzatekeen Europako Berdeetan ere. EQUO gara hori erabaki dugulako, garapen jasangarrian konfiantza dugulako, horrek bermatzen baititu egungo beharrak, hurrengo belaunaldienak arriskuan jarri gabe.

Jasangarritasunari alde ekonomikotik nahiz gizarte eremutik begiratzen diogu, gizartea eta ekologia bateragarriak izan daitezen, ekologia eta ekonomia bideragarriak izan daitezen, eta ekonomia eta gizartea berdintasunean oinarrituak. **Gure bidea guztion arteko erabakia izan dadin**, gurari partikularretatik haratago.

Pertsona guztiek nahi erara antolatzeke eskubidea dutela uste dugu, eta herri guztiek, baita gureak ere, norbere lurraldean nor bere bidea zehazteke eskubidea dutela. Aniztasuna doaitzat jotzen dugu, inolaz ere mehatxutzat. **Ulertzen ditugu eta maite ditugu gure artean diren oinarritzko bi kulturak**, ulertzen eta maite ditugu gure hizkuntzak. **Munduko herri guztiak errespetatzen ditugu.**

Norbere ezagutzan, askatasunean, sormenean eta bioaniztasunari nahiz izaki bizidun guztiekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza sistema nahi dugu. Aurreikuspenean, eta ohitura eta inguru osasuntsuan oinarritutako medikuntza nahi dugu, gehiegizko medikaziotik aldendurik.

Hiritar nahi dugu izan, eta ez inongo erregeren menpeko. Pertsona garen neurrian berdintasunezko tratua nahi dugu, zer izanagatik eta zer pentsatuagatik ere. Erabaki garrantzitsuak hartu beharra dagoenean kontsulta gaitzaten nahi dugu, demokrazia parte hartzailea eta prospektiboa, 4 urtez behin bozka ematea ez baita nahikoa. Gure agintarien hautaketa sistema aldatu nahi dugu. Gertuagotik jarraitu nahi ditugu, Joko garbia ezinbestekoa da egiazko sistema demokratikoa lortuko bada.

Gizartea eraldatu nahi dugu bakearen aldeko konpromisoari eutsiz, helburuen lorpenerako ezein eratako indarkeriazko nahiz koakzio ekintza arbuiatzen dugu, hala nola giza eskubideen urraketak ere. Estatuak ekoizpen baliabide handiak kontrolpean izan behar dituela uste dugu. Langileen eta kontsumitzaileen kooperatiba bidezko antolamendu autonomoaren alde egiten dugu.

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatu nahi ditugu, kontsumismoari eta iraupen urrikoaren merkatuari aurre eginez. Produktibitateak bateragarria izan behar du ekosistemen kontserbazioarekin, luraren, airearen, uraren eta aniztasun biologikoaren osasunarekin. Energia berriztagarrien alde egiten dugu, beraz.

Gizartearen desazkundearen alde egiten dugu, garapen eredu kontsumozalearen aurrean. Ez dugu aberats izan nahi besteren pobrezia lepotik. Azpiegitura publikoen planifikazio arrazoizkoa eta orekatua nahi dugu. Neurritzko jokabideetan, soiltasunean eta orekan datza gakoa, gure ustez. Bestelako hirigintza eredu baten alde egiten dugu. Gure herri eta hiriak aldatu nahi ditugu; baita garraiobideak ere.

Azken batean, gure gizartearen eraldaketa politiko nahiz ekonomikoaren alde eta naturarekiko harremanak bideratzearen alde dauden pertsona guztiekin bat egitea erabaki dugu.